

## ANTSOAIN

### **Antsoaingo Udalaren diru-laguntzetarako deialdi publikoaren oinarriak, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2009an**

Antsoaingo Udalaren Gobernu Batzarrak erabaki zuen, 2009ko irailaren 30ean, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2009ko diru-laguntzetarako deialdi publikoaren oinarriak onestea.

Oinarrien xedea.-Garapen bidean diren herrialdeetan gauzatuko diren proiektuak kofinantzatzea. Proiektu horien helburua izanen da tokian tokiko giza garapena sustatzea hainbat arlotan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa eta landako edo hirietako komunitateen onerako diren azpiegiturak, komunitateek eta haien ordezkariak zuzeneko parte hartzea dutelarik proposatze, kudeatze eta gauzatze lanetan eta, orobat, arreta berezia ematen dietelarik ingurumenaren gaineko eraginari eta baliabide naturalen erabilera iraunkorrari.

Lehentasunez jarduteko eremuak hauek dira deialdi honetan:

-Haurren giza garapena eta garapen soziala bultzatzeko proiektuak, honako alor hauetakoak: osasuna, prebentzioa eta heziketa.

-Emakumearen aldeko sustapen eta garapen proiektuak, haren bizi baldintzak hobetu eta haren eskubideak zein aukerak sustatzeko direnak.

Esleitzeko modua: deialdi publikoa.

Gehienez ere aurreikusitako zenbatekoa: 63.500 euro, Antsoaingo Udaleko gastuen aurrekontuko 1-4621-48203 kontu-sailaren kontura finantzatzeko direnak.

Oinarriak non hartu: Antsoaingo Udalaren Erregistro Orokorra, Udaletxeko plaza, 1; edo Udalaren web orriaren bidez: [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es).

Eskariak noiz aurkeztu.-Hogeita hamar egun naturaleko epea egonen da eskariak aurkezteko deialdi publiko hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Antsoaingo Udalaren iragarki ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Antsoainen, 2009ko irailaren 30ean.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L0923560